

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

#### **Hasierako onespina ematea zerbitzu publikoak eskaintzearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketari, Musika Eskolari buruzkoari**

Udalbatzak, 2020ko otsailaren 12an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespina ematea zerga ordenantza honen aldaketari:

- Hasierako onespina ematea zerbitzu publikoak eskaintzearen eta, musika eskola dela eta, administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen zerga ordenantzari.

Jendaurrean jartzen da interesdunek aukera izan dezaten espedienteaz aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera; eta jakinarazten da ezen, erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko dela jendaurreko epea igarotakoan.

Dulantzi, 2020ko otsailaren 20a

*Alkatea*

**JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA**